

POS-D34

*PD en Ingeniería Mecánica***ABIATZE MOMENTUA IRAULTZE ERRODAMENDUETAN**

Iker Heras Josu Aguirrebeitia Mikel Abasolo

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

Haize eta eguzki energia bezalako iturri berriztagarriek gero eta presentzia nabarmenagoa dute merkatu elektrikoan. Hau dela eta, hauen aprobetxamendurako bideratuta dauden teknologiatan erabiltzen diren osagaien ezagutza sakonago bat beharrezkoa da. Zentzu honetan, iraultze errodamenduek helburu garrantzitsu bat betetzen dute, makinen orientazioaren arduradunak baitira, besteak beste. Errodamenduak abiarazteko behar den marruskadura momentua, biraketa ahalbidetzeko sistema eragilearen dimentsionamendurako ezinbesteko datua da, eta halaber beharrez ezagutu beharreko parametroa. Energia mota hauek errentagarriago egiteko joerak, makina handiagoak diseinatzera bultzatzen du merkatua, jokoan dauden indarrak areagotuz. Honek, aipaturiko marruskadura momentuaren areagotzea dakar baita ere, diseinuan faktore mugagarri bat izatera heltzen delarik. Ezaugarri erresistenteak hobetzeko helburuarekin, errodamendu mota hauek prekargatu ohi dira gaine dimentsionatutako bolak erabiliz. Hala eta guztiz ere, ahalmen estrukturalen areagotzearekin batera, abiatze momentuaren handitzea dator. Efektu kontrajarri bi hauek direla eta, beharrezkoa suertatzen da konpromisozko emaitza bat bilatzea diseinu fasean. Bestalde, kontuan izan behar da osagai hauen mekanizazio prozesuen tolerantziak bolen gaine dimentsionamenduaren orden berekoak direla. Hau horrela izanik, fabrikazio erroreek prekargak duen pareko influentzia izango du marruskadura momentuan. Argi geratzen da beraz marruskadura momentuaren balioespen zehatz baterako errodamenduen eraztunen pisten benetako geometria ezagutzea ezinbestekoa dela. Komunikazioan, doktoregaiak tesi zuzendariekin batera marruskadura momentuaren kalkulurako garatutako metodologia aurkeztuko da. Metodologia honek zehaztasuna bilatzen du, pisten fabrikazio erroreak eta bolen tolerantziak kontuan hartzen baititu. Era berean, kasu konkretu baterako emaitzak erakutsiko dira. Azkenik, kalkulu hauek neurketa esperimentalekin alderatuko dira.